



Asociación Española de Ciencia Política y de la Administración

POLITIKA ETA ADMINISTRAZIO ZIENTZIETAKO ESPAINIAKO ELKARTEAREN (ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE CIENCIA POLÍTICA Y DE LA ADMINISTRACIÓN, A.E.C.P.A.) ESTATUTUAK

I. TITULUA

PRINTZIPIO OROKORRAK

1. artikulua.

1.-AECPAk helburu hauek ditu: Politika eta Administrazio Zientzia sustatzea; horien ikerketak bultzatzea; eta arlo horretako ikertzaile, irakasle, aditu eta espezialisten artean lankidetzazko zientifiko eta profesionala sustatzea, demokrazia eta giza eskubideen aldeko konpromisoa oinarri.

2.- Horrez gain, Espainiak gauzatzen dituen ekintza zientifiko-politikoak atzerrian zabaltzen ditu Erakundeak, eta antzeko helburuak dituzten erakundeekin harremanetan dago, bai estatu mailan bai nazioartean.

3.- Erakundeak estatu espainiar osoan jarduten du; alabaina, Erakundeak edo bere ordezkariak nazioarteko saio zientifikoetan ere har dezakete parte.

2. artikulua.

AECPA helburu zientifikoekin sortu zen soilik, aurreko artikuluan zehaztutakoekin hain zuzen, eta Espainian indarrean dauden legeek arautzen dute bere jardura.

3. artikulua.

Erakundearen legezko helbidea hau da: Ikerketa Soziologikoen Zentroa, C/ Montalbán, 8, Madril (posta-kodea: 28014).

II. TITULUA



Asociación Española de Ciencia Política y de la Administración

ERAKUNDEAREN JARDUERA

4. artikulua.

Lehen artikuluan aipatutako helburuak erdiesteko, jarduera hauek gauzatuko ditu Erakundeak:

- 1.- Kideen artean harreman zientifiko eta profesional iraunkorra lortzen lagunduko duten baldintzak sustatu.
- 2.- Espainian zein atzerrian Politika eta Administrazio Zientziari buruzko bilerak, mintegiak edo ikerketak antolatu edo horiek antolatzen lagundu.
- 3.- Ordezkarien bitartez, nazioartean antolatzen diren Politika eta Administrazio Zientziari buruzko biltzar eta saio zientifikoetan parte hartu, bere bazkideen presentzia sustatuta eta Espainiak ekarpen zientifikoa egiten duela egiaztatuta.
- 4.- Antzeko helburuak dituzten atzerriko Unibertsitate, Ikerketa Zentro eta Erakundeekin edozein motatako trukeak sustatu.
- 5.- Espainian Politika eta Administrazio Zientziaren irakaskuntzak eta ikerketak dituzten arazoekiko interesa erakutsi.
- 6.- Aldian-aldian saio zientifiko bat egin, Erakundearen helburuekin zerikusia duten gaiak aztertzeko.
- 7.- Revista Española de Ciencia Política editatu eta argitaratu, bai eta bilera zientifikoetan emandako hitzaldiak edo egindako jakinarazpenak eta bazkideen lanbidearekin edota jakintza-arloekin zerikusia duten bestelako lanak ere.
- 8.- Espainian Politika eta Administrazio Zientzia garatzen lagunduko duten bestelako ekintzak gauzatu.
- 9.- Ekintza guztiak arreta handiz gauzatu, irakaskuntzan eta ikerketan generoaren perspektiba sustatzeko eta ikusgai egiteko moduan.

III. TITULUA

ERAKUNDEKO KIDEAK



Asociación Española de Ciencia Política y de la Administración

5. artikulua.

AEPCAko kide edo bazkideak dira honako kategoría hauek:

- a) Banako kideak.
- b) Kide kolektiboak edo instituzionalak.
- c) Ohorezko kideak.

6. artikulua.

Erakundeko banako kideak dira goi-mailako irakaskuntzako irakasleak, ikertzaileak eta Politika eta Administrazio Zientziaren arlo akademikoan modu profesional edo hedatzailean jarduten duten pertsonak; bai eta arlo horietako batekin lotura duen titulua (lizentziatura edo gradua) duten pertsonak ere.

7. artikulua.

Banako kideen artean kide emerituak egon daitezke, Erakundearen kuotak ordaintzeaz salbuetsita egongo direnak (eta Erakundeak antolatzen dituen biltzarrei dagozkien tasak ere bai). Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu kide emerituak, erretiroa hartzeko prest dauden kideen artean.

8. artikulua.

Kide kolektibo edo instituzionalak izan daitezke berariaz hala eskatzen duten pertsona juridikoak eta edozein motatako zentroak. Zuzendaritza Batzordea ados egon behar da, eta lehen Batzar Nagusian hala berretsi beharko da.

9. artikulua.

Hona hemen banako kideen eskubideak:

- 1.- Batzar Nagusiaren bilkuretan egon, erabakietan parte hartu eta boto-eskubidea gauzatu.
- 2.- Batzar Nagusiko karguak aukeratu eta horietarako hautagai izan.
- 3.- Erakundearen ekintzetan parte hartu.
- 4.- Zuzendaritza Batzordeari Erakundearen helburu sozialak hobeto erdiesten lagunduko duten iradokizunak helarazi, zuzenean zein Batzar Nagusiaren bitartez.



Asociación Española de Ciencia Política y de la Administración

10. artikulua.

Hona hemen kide kolektibo edo instituzionalen eskubideak:

- 1.- Batzar Nagusian integratu, haiek ordezkatu dituzten pertsona fisikoak izendatuta.
- 2.- Erakundearen ekintza guztietan parte hartu.
- 3.- Zuzendaritza Batzordeari ekimen edo iradokizunak helarazi, Erakundearen helburu sozialak hobeto erdiesten laguntzeko.
- 4.- Erakundearen Kontseilu Akademikoko kide izan.

11. artikulua.

Aurreko artikuluetan aipatutako kideek betebeharrak hauek dituzte:

- 1.- Batzar Nagusiak ezarritako urteko kuotak ordaindu.
- 2.- Erakundeko gobernu-organoen akordioak bete.

12. artikulua.

Erakundeko kide izaera galduko da honako kasu hauetan:

- 1.- Norberak eskatzen badu
- 2.- 11. artikuluan ezarritako Estatutuaren baldintzak betetzen ez badira
- 3.- Batzar Nagusiak hala erabakitzen badu, Zuzendaritza Batzordeak proposatu ondoren, kideek kide izateko baldintzak betetzeari uzten diotenean.

13. artikulua.

Ohorezko kide izaera izan daiteke, Zuzendaritza Batzordeak hala adosten badu. Hala gertatzen bada, Batzar Nagusiari jakinaraziko dio honek egiten duen lehen bileran.

IV. TITULUA

ERAKUNDEAREN GOBERNU-ORGANOAK



Asociación Española de Ciencia Política y de la Administración

14. artikulua.- Hona hemen Erakundearen gobernu-organoak:

- 1.- Batzar Nagusia
- 2.- Zuzendaritza Batzordea
- 3.- Presidentea.

15. artikulua.

- 1.- Batzar Nagusia da Erakundearen organo gorena; kide guztiek osatzen dute.
- 2.- Ohiko bilkurak zein bilkura bereziak egin ditzake. Ohiko bilkurak gutxienez bi urtean behin egingo dira, eta deialdia Zuzendaritza Batzordeak egingo du, gutxienez hamabost egun lehenago.
- 3.- Batzar Nagusiaren ohiko bilkura lehen deialdian baliozkoa izango da gutxienez kideen erdia gehi bat bertaratu direnean. *Quorum* hori erdiesten ez bada, baliozkoa izango da ordu erdi beranduago, bigarren deialdian, lehen deialdiaren toki berean, bertaratu den kide-kopurua edozein dela ere. Erabakiak bertaratutakoen botoen gehiengo soilaz hartuko dira.

16. artikulua.

Batzar Nagusiari dagozkio honako hauek ohiko bilkuran:

- 1.- Zuzendaritza Batzordeko kideak aukeratzea eta horren kudeaketaz informatua izatea.
- 2.- Kideek urtero ordaindu beharreko kuotak aldatzen badira, aldaketaren berri informatua izatea.
- 3.- Urteko aurrekontua eta aurreko aurrekontu-ekitaldietako emaitza-kontuak onartzea.
- 4.- Erakundearen helburuak erdiesteko beharrezkoak diren erabakiak hartzea, Zuzendaritza Batzordeak proposamena egiten duenean.

17. artikulua.

- 1.- Batzar Nagusiak bilkura berezia egingo du, Zuzendaritza Batzordeak deialdia egin ondoren (gutxienez hamabost egun lehenago) edo Batzar Nagusiak berak ohiko bilkuran hala erabakitzen badu.
- 2.- Baliozko erabakiak hartu ahal izateko, botoa ematen duten kideen bi herenek gutxienez aldeko



Asociación Española de Ciencia Política y de la Administración

botoa eman behar dute.

18. artikulua.

Batzar Nagusiari dagozkio honako hauek bilkura berezian:

- 1.- Erakundearen jabetzakoak diren ondasunen xedapenari eta besterentzeari lotutako erabakiak hartzea.
- 2.- Hala badagokio, Erakundea desegiteko erabakia hartzea, eta hura desagertzen denean ondasunekin zer egingo den ere bai.
- 3.- Zuzendaritza Batzordeak aurkezten dizkion edota Batzar Nagusiak proposatu ondoren gai-zerrendan dauden gaien gainean erabakiak hartzea, ohiko saioan, deialdia Batzar Nagusiaren erabakiz egin denean.
- 4.- Hala badagokio, bertaratzen diren kideen 2/3ek aldeko botoa ematen badute, Zuzendaritza Batzordearen aurkako zentsura-mozioa onartzea; kasu horretan, ordezkari Zuzendaritza Batzordea proposatu behar da nahitaez, eta Erakundeko kideen 1/3ak sustatu behar du mozioa.

19. artikulua.

Batzar Nagusiaren ohiko bilkuretan zein berezietan posta bidezko botoak onartuko dira. Horrez gain, gai-zerrendako gai zehazterako, ordezkari bidezko botoak onartuko dira, behar bezala dokumentatuta. Zuzendaritza Batzordeko kideak aukeratzeko, posta bidezko botoak onartuko dira, baina ordezkari bidezko botoak ez.

20. artikulua.

1- Erakundearen Zuzendaritza Batzordea honako hauek osatuko dute:

- Presidentea.
- Presidenteordea.
- Idazkari nagusia.
- Diruzaina.
- Batzordekideak, gehienez ere hamar.

2.- Erakundean presidente kargua utziko duen pertsonak hitza du Batzar Nagusian, baina ez du boto-



Asociación Española de Ciencia Política y de la Administración

eskubiderik.

3.- Batzar Nagusia emakume eta gizonen arteko oreka mantenduz osatuko da, bai eta beste irizpide batzuk betez ere (lurraldea, instituzioa, esperientzia eta diziplina), Erakundearen pluraltasuna islatze aldera.

21. artikulua.

Zuzendaritza Batzordearen agintaldia lau urtekoa izango da, hura aukeratzen den unetik aurrera zenbatzen hasita, urte horretan egiten den biltzarrekin bat etorriz.

1.-Zuzendaritza Batzordeko kideak beste behin bakarrik hautatu ahal izango dira. Inor ezin da Zuzendaritza Batzordeko kide izan bi agintaldi baino gehiago jarraian, Erakundeako presidente hautatzen badute izan ezik.

2.- Agintaldian zehar hutsik geratzen diren postuak presidenteak proposatzen dituen kideek bete ahal izango dituzte, betiere Zuzendaritza Batzordearen oniritziarekin, hurrengo Batzar Nagusia egin arte; une horretan, zatikako hauteskundearen deialdia egingo da postu horiek betetzeko.

22. artikulua.

Zuzendaritza Batzordeari dagozkio honako hauek:

1.- Erakundearen ekintzak zuzendu eta administratzea, Batzar Nagusian hartutako erabakiak betetzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuz.

2.- Batzar Nagusiaren ohiko bilkuren edo bilkura berezien deialdia adostea.

3.- Urteko aurrekontua eta kontuen justifikazioa onartzea, eta kideek urtero edo Erakundeak antolatutako biltzarretara joateko inskripzioengatik ordaindu beharreko kuotak adostea.

4.- Banako kide emerituak eta ohorezko kideak izendatzeko erabakia hartzea, Batzar Nagusiari jakinarazita.

5.- Kide berriak onartzea (lan hau idazkari nagusiaren eskuetan utz dezake) eta Batzar Nagusiari kide izaera kentzea proposatzea, 12. artikuluari jarraikiz.

6.- Erakundearen helburuak betetzearekin lotura duten ekintzen gainean erabakitzea.

7.- Presidenteak hala eskatzen badu, Erakundea kide den nazioarteko erakundeetarako ordezkariak izendatzea



Asociación Española de Ciencia Política y de la Administración

8.- Lantaldeak sortzea Erakundeak hobeto funtziona dezan.

9.- Batzorde zientifikoko, epaimahaiko eta Erakundearen erabakiak har dezaketen bestelako elkargoetako kideak izendatzean, oreka mantentzea generoari, lurraldeari, instituzioari, esperientziari eta diziplinari dagokienez.

23. artikulua.

1.- Zuzendaritza Batzordea gutxienez hiru aldiz batzartuko da urtean. Presidenteak egingo du deialdia, gutxienez zazpi egun lehenago, dagokion Gai-zerrendarekin batera.

2.- Zuzendaritza Batzordeak, bertarutzen diren eta botoa ematen dutenen gehiengo soilarekin hartuko ditu erabakiak. Gai-zerrendako gai zehatzetarako, ordezkari bidezko botoak onartuko dira, behar bezala dokumentatuta.

3.- Zuzendaritza Batzordeak bilkura berezia egingo du presidenteak edo kideen herenak hala eskatzen badu. Bilkura berezia egiteko eskaeran dagokion gai-zerrenda proposatu behar da.

24. artikulua.

1.- Zuzendaritza Batzordeko presidentea lau urterako izendatuko da, eta ezingo da elkarren segidako mandaturako berriz hautatu.

2.- Presidenteari dagozkio honako hauek:

2.1.- Batzar Nagusiaren bilkuren (ohikoak zein bereziak) deialdia egitea eta horietako buru izatea, eta bertan adostutakoa betearaztea.

2.2.- Zuzendaritza Batzordearen bileren deialdia egitea, horietako buru izatea eta haiek koordinatzea; berdinketa dagoenean, kalitateko botoa emango du hura hausteko.

2.3.- Erakundearen ordezkaria izatea arlo guztietan eta ondore guztietarako.

2.4.- Egin beharreko ordainketak egiteko agindua ematea, urteko kuotak kobratzea, eta Erakundeak jasotzen dituen diru-laguntzak edo dagozkion bestelako zenbatekoak onartu eta jasotzea.

2.5.- Berez edo Zuzendaritza Batzordeak eztabaidatu ondoren, beharrezkoak diren erabakiak hartzea Erakundeak bere helburuak erdietsi ditzan.



Asociación Española de Ciencia Política y de la Administración

2.6.- Estatutuen arabera beste gobernu-organoek berariaz esleituta ez dituzten ekintzak gauzatzea, betiere Zuzendaritza Batzordearen onespenezkin.

2.7.- Erakundearen presidente kargua utziko duen pertsonak hitza izango du Zuzendaritza Batzordean, baina ez du boto-eskubiderik izango.

25. artikulua.

1.- Presidentearen kargua hutsik badago edo presidentea bertan ez badago (kanpoan edo gaixorik dagoelako), presidenteorde batek egingo du legez bere lana, lehentasun-hurrenkerari jarraituz.

2.- Idazkari nagusiak Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen bileretako aktak egin eta zainduko ditu, bi organo horien bilkuren deialdiak egingo ditu presidentearen izenean, eskatzen zaizkion ziurtagiriak igorriko ditu eta beharrezkoak diren dokumentuak prestatuko ditu Erakundeak bere helburuak erdietsi ditzan; eta horrez gain, bere karguari dagozkion funtzioak beteko ditu.

3.- Erakundearen Diruzaintzari dagokio Erakundearen baliabide ekonomikoak zaintzea eta kontrolatzea, urteko aurrekontuaren proiektua prestatzea, kuoten kobrantza kudeatzea, ordainketak baimentzea, Erakundearen kontabilitatea edo kontuak gainbegiratzea eta gastuaren egiterapenari buruzko urteko dokumentua prestatzea.

26. artikulua.

Kontseilu Akademikoa Erakundeko kide kolektiboek osatuko dute. Aholku-emailea izango da, eta bere eginkizuna Zuzendaritza Batzordeari aholkuak ematea da. Urtean behin batzartuko da Politika eta Administrazio Zientziaren garapen instituzionalaren gainean eztabaidatzeko.

V. TITULUA

ERAKUNDEAREN BALIABIDEAK

27. artikulua.



Asociación Española de Ciencia Política y de la Administración

Erakundeak honako baliabide hauek ditu bere helburu sozialak erdiesteko:

- 1.- Kideek urteko ordaintzen dituzten kuotak, Zuzendaritza Batzordeak ezarritakoaren arabera.
- 2.- Erakundeak jaso ditzakeen diru-laguntzak, dohainak, herentziak eta ondarea.
- 3.- Erakundeari dagozkion produktu eta errentak.
- 4.- Erakundeari eskatzen zaizkion ikerketen truke jasotzen dituen zenbatekoak, ikerketaren arduradunei dagozkien ordainsariak kendu ondoren.

28. artikulua.

Aldian-aldian, Erakundearen kontuen egoeraren berri emango zaie agintari eskudunei, eta aurrekontua helaraziko zaie, Batzar Nagusiak hura onartu ondoren. Urtean behin kideei bidaliko zaizkie Erakundearen intranetaren bitartez.

VI. TITULUA

DESEGITEA

29. artikulua.

- 1.- AECPA desegingo da Batzar Nagusiak bilkura berezian hala erabakitzen duenean, gutxienez kideen bi herenak aldeko botoa ematen badu.
- 2.- Erakundea desegiten bada, ondarea (halakorik balego) Politika eta Administrazio Zientziaren arloko ikerketara edo irakaskuntzara zuzenduko da, Batzar Nagusiak desegitea erabakitzen duen bilkura berezi berean adosten duenaren arabera.

AZKEN XEDAPENA:

Batzar Nagusiaren onespena behar da Estatutuetan edozein aldaketa egiteko; aldaketak Erakundearen Erregistro Orokorrean (edo ezartzen den antzekoan) oniritzia eman eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.



Asociación Española de Ciencia Política y de la Administración

XEDAPEN GEHIGARRIA:

Horregatik guztiagatik, AECPA Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritako araubide juridikoari jarraikiz sortu da. ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE CIENCIA POLÍTICA Y DE LA ADMINISTRACIÓN Erakundearen Erregistro Nazionalan inskribatuta dago, 1. Taldean, 1. Atalean, 117653 Zenbaki Nazionalarekin. Nortasun juridiko propio eta independentea du, eta indarrean dagoen araubide juridikoak jarduteko gaitasun juridikoa ematen dio, bai substantiboa bai prozesala, bere helburuak betetzeko eta bere interesak kudeatzeko, eta Erakundearen helburuekin eta funtzionamenduari lotura duten ekintza eta kontratu guztien arabera sortzen diren eskubide eta betebeharrak guztien titularra izan daiteke. Hortaz, ESTATUTU hauetan aurreikusitakoa eta unean-unean indarrean dauden xedapenetan ezarritakoa kontuan hartuz, edozein motatako ondasunak erosi, izan, zergapetu, besterendu eta erabil ditzake, egokitzat jotzen dituen prozedurak sustatu eta haiei jarrai diezaieke, eta dagozkion eskubide eta ekintzak gauza ditzake kasu bakoitzean dagokion administrazio- edo jurisdikzio-organoaren aurrean.